

{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

Badator

Eskoziako erreferenduma berehala ospatuko da eta Eskozian zein nazioartean eztabaidatu, idatzi eta irakurtzen direnak emaitzen ingurukoak dira. Baietzak edo ezetzak irabaziko duen, zer den hoberena Eskozia eta eskoziarren etorkizunerako, haien ekonomia, osasun zerbitzu eta abarretarako. Debatea, eztabaida, iritzi trukateta, argudio ezberdinak, proiektio ugari, finean, kanpaina demokratiko eta normalizatu bat, non baietzaren aldeko militanteek independentziaren proiektua gizarte hobekuntza sakon eta orokor batekin lotzen duten. Ilusioa. Pertsona eta gizarte bezala hobetzeko aukerak sortzen duen ilusioz blai daude independentzia defendatzen dutenak. Ezetzaren aldekoek ez dute halako girorik sortzea lortu, akaso defendatzen duten proiektua eta zabaldu duten mezua beldurrari, dependentziari oso lotuta agertu delako.

Nola iritsi da Eskozia 2014ko irailean independentziaren inguruko erreferenduma gauzatzeraz? Duela hamar, bederatzi, zortzi urte, inork gutxi pentsa zezakeen holarik gerta zitekeenik, eta, aldiz, pixkanaka, inurri lana eginez eta isil-isilik, batere zaratarik atera gabe, eskoziar abertzaleak independentzia lortzeko baldintzak sortzen aritu dira. Duela hamarkada bat independentzia zaleak oso gutxi ziren Eskozian, oso gutxi, Scottish National Partyk (SNP) eskuratzen zuen boz kopuruak ere ez zuen pentsarazten horrelako ofentsiba politikorik gauzatzeko baldintzarik zegoenik, eta, aldiz, lortu dute.

Egindako lanaren pausu garrantzitsuenaz bozketa egunean emango dute. Estatu-rik gabeko herrien ikuspegitik Eskoziak dagoeneko irabazi du, bere etorkizuna modu askean erabakitzeko aukera izan duelako; emaitza bat edo bestea izateak ez du horrenbesteko garrantzirik. Bi nazio ezberdinen arteko harremanak modu demokratikoan eta bakoitzaren nahi eta interesen errespetuan gauzatzea da gakoa. Hala ere, Eskozian independentziaren aldeko bidea aspaldi ibiltzen hasi zirenentzat emaitzak berebiziko garrantzia hartzen du. Baten batek zioen horrelako apustuak irabazteko egin behar direla, inork ez duela horrelako ahalginiak galtzeko egiten. Eta egia da, Eskoziaren etorkizuna jokoan dago, eta, erabakia bat edo bestea izateak

eragin handia izango du Eskoziaren eta eskoziarren etorkizun eta bizimoduan. Ez da berdina, ezetzaren aldeko batzuek saltzen duten moduan, Erresuma Batua-ren kide izaten jarraitzea edo estatu independente bilakatzea. Ongizatea, hezkuntza, osasungintza, kultura, ekonomia, gizarte ereduak finean, ezberdina izango da kasu batean edo bestean.

Aniztasuna eta akumulazioa, horiek izan dira nire us-tez eskoziar prozesuaren gako nagusiak. Independentzia edukiz definitu dute, sektoreka, alderdika, norberak bere proiektu propioa edukita elkarrekin lan egin eta helburua lortzeko akordio taktikoa eskuratuz. Eskoziako Gobernuak aurkezturiko liburu zurian azaltzen da instituzioetatik eskoziar estatua eraikitze oinarri nagusiak zeintzuk diren, balizko estatu berri horren ezaugarri nagusiak zeintzuk izango diren. Baina hori proiektu bat baino ez da, gauzatu eta irabazi gabekoa. Badira ezkerretik eta eskuinetik bestelako proposamen eta asmoak ere, eta, independentziaren aldekoek erreferenduma irabaztekoan, estatuaren eraikuntza bera ere prozesu bat izango da, non helburu eta sektore ezberdinen arteko talka

Aniztasuna eta akumulazioa dira eskoziar prozesuaren gako nagusiak. Edukiz definitu dute independentzia, sektoreka, alderdika, elkarrekin lan egin eta helburua lortzeko akordio taktikoa eskuratuz

egongo den. Ziurrenik gaurtik erreferendumaren egunera arte elkarrekin joango diren asko arerio politiko bilakatuko dira etorkizun hurbilean.

Abertzaleak eta ez abertzaleak, bertakoak eta kanpokoak, ezkertiarak eta eskuindarrak, langileak eta enpresariak, anitza da eskoziar independentziaren aldeko mugimendua; aniztasun horrek gehiengo bihurtzeko gaitasuna duen erakutsi behar du orain. Gakoa ez da besteek norberak bezala pentsatzea lortzea, baizik eta norberaren proiektua guztientzako aproposa izatea, proiektu horrek guztientzako tokia uztea. Irabazteko gehiengoaren babesa beharrezkoa da, gutxi edo asko izatea ez da nahikoa. •